

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SA-N ONDOKO LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA
ETA HAUTAKETA PROZESUA:**

KARROZARIA

- **1.1 FASERAKO –PROBA PROFESIONAL TEORIKOA– ETA 2. FASERAKO –PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUNEKOAK – DEIA**

Deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, **dei egiten zaie hautaketa prozesuan onartutako hautagaiei 1.1. Faseko probak -Proba Profesional Teorikoa- eta 2. Fasekoak - Proba psikoteknikoak eta gaitasunekoak- egitera. Probak datorren 2017ko urriaren 5ean izango dira, 8:30ean, EHUko Enpresa Zientzietako fakultatean, Oñati plazan, 1. 20018 Donostia-San Sebastianen (gelaren zenbakia sarreran adieraziko da).**

1.1 Fasea (Proba Profesional Teorikoa) proba teoriko bat izango da, eta mekanikako eta karrozeriako ezagutza orokorrak baloratuko dira bertan. Horretarako, era askotako ariketak planteatu daitezke, test erakoak, arazoak eta garatzeko galderak.

Fase honetan 12 puntu lortu beharko dute gutxienez, guztira ebaluatutako 20 puntutik.

2. Fasea (Proba Psikotekniko eta Gaitasunekoak), berriz, proba psikotekniko eta gaitasuneko proba batzuk izango dira, lanposturako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak baloratzeko.

Fase honetan 12 puntu lortu beharko dute gutxienez, guztira ebaluatutako 20 puntutik.

Hautagaiek NAN, pasaporte edo gidabaimenaren originala erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat aurkeztu ezean, ezin izango dituzte probak egin.

Hautaketa Prozesuan zehar, Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela eta, hautagairen batek informazio edota dokumentu faltsuak aurkeztu baditu, hautagai hori deialditik kanpo utzi ahal izango du automatikoki.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin lotura duen informazio guztia jakinarazpenerako honako bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- Web orria: www.dbus.eus/es/otros-servicios/seleccion-de-personal/
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain, 7. Donostia-San Sebastian).

Izpta. Hautaketa Batzordea
Donostia, 2017ko irailaren 15a